



**2018KO IRAILAREN 7KO
TOKIKO GOBERNU BATZARRA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hemezortziko irailaren zazpian, arratsaldeko ordu bi eta erdietan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Felix Urkola Iriarte Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Ane Irastortza Izagirre, Aitor Altuna Oiarbide, Joseba Imanol Aran Barandiaran eta Marian Zufiria Apeztegia.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutako onespenera aurkezten da 2018ko uztailaren 27an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

II.- FAKTURAK.-

2018ko uztailaren 27an egindako tokiko gobernu batzordean 63 zbk.dun fakturen zerrenda onartu zen. Fakturen zerrenda horrek 2018-FAKT-001709-00 faktura barneratzen zuen, eta faktura horrek akatsa duela ikusi izan da. Faktura hori berez 2.550€koa da eta zerrendan 2.250€ balitz bezala jaso zen.

Hau horrela izanda, Tokiko Gobernu Batzarrak, 2.250€ko 63 zbk.dun fakturen zerrenda horretan barneratzen den 2018-FAKT-001709-00 faktura atzera botatzea erabakitzen du, zuzendutako faktura gaurko zerrendan sartuz.

Honen ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertzen dira. Aztertu ondoren 2018ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 77 zbk.dun fakturen zerrenda, bere espedientean dagoena, EHUN ETA BERROGEITA HAMAHIRU MILA ETA HIRUROGEITA LAU EURO ETA HIRUROGEITA HAMAZAZPI ZENTIMO (153.064,77€) takoa onartzea erabakitzen da.

III.- GIZARTE ZERBITZUETAKO LAGUNTZAK.-

Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak aurkeztutako proposamenak aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartzen ditu:

Etxeko Laguntza Zerbitzua.-

- 18-11-07 zbk.dun esped.: zerbitzuan alta ematea 2018ko uztailaren 23tik abuztuaren 22ra, astelehenetik ostiralera egunero 2 ordu, gaixoaldi baten ondorengo errehabilitazioan laguntzeko. Onuradunaren ekarpena zerbitzu kostuaren %100 izango da.

- 17-11-08 zbk.dun esped.: zerbitzua handitzea 2018ko irailaren 5etik aurrera, astean 2 ordutik 5 ordura, onuradunaren osasun egoera okertu delako. Onuradunaren ekarpena zerbitzu kostuaren %39 izango da.



Gizarte Larrialdietarako laguntzak.-

- 18-01-011 zbk.dun esped.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako hilean 61,05€ko laguntza ematea ekainetik abendura eta alokairu gastuetarako hilean 165,00€ko laguntza ematea ekainetik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %66 da.
- 17-01-003 zbk.dun esped.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako hilean 92,50€ko laguntza ematea ekainetik irailera eta alokairu gastuetarako hilean 250,00€ko laguntza ematea ekainetik irailera. Ematen zaiona eskatutakoaren %100 da.
- 17-01-009 zbk.dun esped.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako hilean 88,80€ jasotzetik 65,68€ jasotzera pasatzea uztailetik abendura, onuradunaren diru sarrerak aldatu direlako. Ematen zaiona eskatutakoaren %71 da.
- 18-01-006 zbk.dun esped.: etxebizitzaren mantentze eta alokairu gastuetarako laguntzan baja ematea irailetik, diru sarrerak bermatzeko errenta jasotzeko eskubidea izateagatik.
- 16-01-003 zbk.dun esped.: etxebizitzaren mantentze eta alokairu gastuetarako laguntzan baja ematea irailetik, diru sarrerak bermatzeko errenta jasotzeko eskubidea izateagatik.

Ifarra Hegoa Lankidetzeta Programa.-

Adierazitako erakundeei eta zehazten diren proiektuengatik, zerrendatzen diren dirula guntzak ematea:

ESKATZAILEA	PROIEKTUA	DIRULAGUNTZA
Mundu solidarioa helburu	Desgaitasuna duten gazte eta helduen formazio sozio laborala Diriamban (Nicaragua).	7.500,00€
DOA, Denok Osasunaren Alde	Beni departamentuko (Bolivia) osasun sistema sendotze plana, asistentzia eta formakuntza mailan.	10.000,00€
Taupadak GKE	Genero berdintasun sustatzaileen formakuntza Beni departamentuan (Bolivia).	2.000,00€
Herriak elkarlanean	Mantako (Benin) osasun zentroa.	7.500,00€
Asociación de Cooperación al Desarrollo Bilbotik Perura	Alto Trujilloko (Peru) emakumeen lan baldintzak hobetzea.	1.250,00€
Donostiako Elizbarrutiko Misio Ordezkaritza	Rwandako proiektuan, Giharan, eraikin berria eraikitzea.	6.130,00€



Lankidetzarako Ingeniaritza	Oinarrizko heziketa hobetzea Niman (Benin), eskola bat eraikiz.	3.000,00€
Bakerako Lankidetzeta Batzarra	Elikadura egokia eta antolatze gaitasuna sustatzea, berdintasun ikuspegetik, Chimaltenango departamentuan (Guatemala).	3.610,00€
Etiopia-utopia	Lehen hezkuntzako haurrei hilerokoaren inguruko heziketan laguntzea Tigrayn (Etiopia).	2.550,00€
Salvamento marítimo humanitario eta PROEM-AID	Eraginkorra den erreskate ontzi bat pleitatearen proiektua martxan jartzea (Mediterraneo zentraleko zonaldea).	5.000,00€

IV.- SAN BENITO IKASTOLAKO GALDARA GELA ERABERRITZEKO ETA GAS INSTALAKUNTZA BERRIA EGITEKO LANEN 1. OBRA EGIAZTAGIRIA .-

San Benito ikastolako galdara gela eraberritzeko eta gas instalakuntza berria egiteko lanen obra zuzendaritza daraman udal arkitekto teknikoak lanen lehen obra egiaztagiria egin du. Lehen obra egiaztagiri honen zenbatekoa, BEZ barne, BERROGEITA HAMABOST MILA EHUN ETA LAU EURO ETA HIRUROGEITA BAT ZENTIMO (55.104,61€)takoa da. Lan hauek Climatizaciones Orio S.L. ari da burutzen.

Tokiko Gobernu Batzarrak, gaia aztertu ondoren, aho batez, obra egiaztagiri hau onartzea erabakitzen du.

V.- SAN BENITO IKASTOLAKO JOLASTOKIAREN ESTALKIAREN 1. OBRA EGIAZTAGIRIA .-

San Benito ikastolako jolastokiaren estalkia egiteko lanen obra zuzendaritza daramaten Soroa Arkitektoak S.L.ko Pedro Izasun arkitektoak eta Estibaliz Igartua arkitekto teknikoak lanen lehen obra egiaztagiria egin dute. Lehen obra egiaztagiri honen zenbatekoa, BEZ barne, HIRUREHUN ETA HOGEITA BOST MILA EHUN ETA HOGEITA HEMERETZI EURO ETA BERROGEITA BEDERATZI ZENTIMO (325.139,49€)takoa da. Lan hauek Iparragirre Eraikuntza Lanak S.L. ari da burutzen.

Tokiko Gobernu Batzarrak, gaia aztertu ondoren, aho batez, obra egiaztagiri hau onartzea erabakitzen du.

VI.- GALDERA ETA ERREGUAK .-

Alkateak udal gizarte langile baten amatasunagatiko bajaren aurrikuspenaren aurrean bere ordezkapena egiteko prozesua abiatzeari buruzko informazioa ematen du alde batetik eta bestetik Gurutzeko lurrazpiko garajeen eraikuntza egiteko kontratazio espedientea nola dagoen.

Aran zinegotziak (EH Bildu) Metalurgicas Urbasaren gunearen inguruan galdetzen du eta alkateak erantzun egiten dio galdetutakoari, idatziz ez dagoela adieraziz.



Beste alde batetik Aran zinegotziak (EH Bildu) jubilatuen taberna abuztuan ixteari buruz galdetzen du eta alkateak galdetutakoari erantzun egiten dio.

VII.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, arratsaldeko hirurak eta hiru direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.



LAZKAOKO
UDALA